

Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2019ko azaroaren 25etik 29rako astea

➤ **INGURU MAKROA:**


- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

➤ **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

➤ **GURE IKUSPEGIA**

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROGUNEA: IFO ALEMANA



Datuaren analisia

Alemaniako enpresen konfiantzaren IFO indizeak hiru hamarren egin zituen gora, 95 punturaino, eta urriko datua ere gorantz berrikusi zen; 91,6an geratu zen datua. Hortaz, adierazlea hiru hilabetez jarraian igo zen. Hazkunde-aukerek bost hamarren egin zuten hobera, 92,1eraino, eta oraingo egoeraren pertzepzioak hamarren bat, 97,4raino, uztailleko minimoetatik aldentuz. Indizea prestatzen duen IFO institutuak Alemaniako ekonomiaren hobekuntza bat iragarri zuen urteko laugarren hiruhilekorako: 0,2ko hazkundera aurreikusi zuen, hirugarren hiruhilekoan izandako % 0,1aren aldean. Halaber, badirudi Alemaniako barne eskariak indartsu eta herrialdeko ekonomiaren euskarri izaten jarraituko duela.

Adierazlearen azalpena

Enpresa-giroaren Indize alemaniarra (IFO) adierazle garrantzitsua da, inbertitzaileek Alemaniako jarduera ekonomikoan duten konfiantza-maila neurtzen baitu. IFO Institutuak argitaratzen du hilero. 7.000 exekutibori baino gehiagori egindako inkesta batean bildutako datuetan oinarritzen da, gaur egungo eta etorkizuneko ekonomiaren egoerari buruzko galderekin. IFO indizeak lotura oso estua dauka Industria Ekoizpenarekin, eta, horrenbestez, BPGd-aren bilakaerarekin (lehenago argitaratzen denez, aurreikus daiteke).

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROGUNEA: KPI



Datuaren analisisia

Euroguneko inflazio-tasa % 1ekoa izan zen azaroan, urrikoa baino hiru hamarren handiagoa, eta, beraz, prezioen lehen igoera joan den ekainetik. Azaroko inflazioaren gorakada zerbitzuen eta elikagai freskoen prezioen igoeraren eskutik etorri zen. Energiaren prezioek, bestalde, % 3,2 egin zuten behera, aurreko hilean baino hamarren bat gehiago.

Energia, elikagai freskoak, alkohola eta tabakoa kalkulatik kanpo utzita, Euroguneko azpiko inflazio-tasa aurreko hileko % 1,1etik % 1,3ra igo zen azaroan, igoerarik handiena apiriletik.

Adierazlearen azalpena

KPIa hileroko prestatzen du Eurostat/Europako Banku Zentralak. Europako etxeek kontsumitzen dituzten oinarritzko zerbitzu eta ondasunen multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin ezagutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: BPGd

	Est. PIB 3º Trim	Diferencia	1ª Revisión
Total	1,90%	0,20%	2,10%
Consumo privado	1,93%	0,04%	1,97%
Consumo público	0,35%	-0,07%	0,28%
Inversión	-0,22%	0,04%	-0,18%
* No residencial	-0,40%	0,04%	-0,36%
* Residencial	0,18%	0,00%	0,18%
Inventarios	-0,05%	0,22%	0,17%
Sector Exterior	-0,08%	-0,03%	-0,11%

Datuaren analisia


Barne produktu gordinak % 2,1eko hazkunde urtekotua izan zuen uztaila eta iraila bitartean, eta, hortaz, hamarren bat gora egin zuen aurreko hiruhilekoaren aldean, bigarren kalkularen arabera. Lehenengo datuari dagokionez, ekonomia estatubatuarra % 0,2 gehiago hazi zen. Hobekuntza horren arrazoi nagusia inbentarioen eta egituretan egindako inbertsioen goranzko berrikuspena izan zen.

Adierazlearen azalpena

Barne produktu gordina (BPGd) Analisi Ekonomikoen Bulegoak kaleratzen duen datua da. Herrialde baten ekoizpena eta hazkunde ekonomikoa neurtzeko erabiltzen den adierazle ekonomiko bat da. Estatu Batuek ekoizten dituzten azken zerbitzu edo ondasunen batuketa eginez lortzen da, eta denbora-tarte jakin batean erregistratzen da. Zerbitzu edo ondasun horiek lurralde nazionalen ekoiztakoak izan behar dute, hala enpresa nazionalen nola atzerrikoen eskutik.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZA



Datuaren analisia

Kontsumitzaileen konfiantza aurreko hileko 126,1etik 125,5 punturaino jaitsi zen azaroan (125,9tik berrikusitako datua), The Conference Boardek prestatutako adierazlearen arabera. Analistek, baina, 127 puntu lortzea espero zuten. Oraingo egoeraren indizea, merkataritza eta lan-arloko baldintzen gainean kontsumitzaileek egindako ebaluazioan oinarritutakoa, 173,5etik 166,9ra jaitsi zen. Nolanahi ere, aukeren indizea, diru-sarreraren, negozioen eta lan-merkatuaren inguruko kontsumitzaileen epe laburreko aurreikuspenetan oinarritutakoa, aurreko hileko 94,5etik 97,9ra igo da hil honetan.


Adierazlearen azalpena

Estatu Batuetako kontsumitzailearen konfiantza neurtzen duen adierazle ekonomikoa da, hau da, kontsumitzaileen gastua aurreratzen duen adierazlea da. The Conference Boardek hilean behin argitaratzen du, 1967tik. Estatu Batuetako 5.000 familiei egindako inkesta batean bildutako datuetan oinarritzen da. Inkesta horretan, enpleguaren eta negozioaren (norbere konturako langileen kasuan) gaur egungo egoerari eta datozen sei hilabeteetarako aurreikuspenei buruz galdetzen zaie, baita familiaren diru-sarrera guztiei buruz ere. Kontsumitzailearen konfiantza altuak hedapen ekonomikoa sustatuko du, baina baxua bada, hazkunde ekonomikoaren uzkurdua

eragingo du.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

JAPONIA: INDUSTRIA-EKOIZPENA



Datuaren analisia

Urriko industria-ekoizpenak % 4,2 egin zuen behera aurreko hiletik; jaitsierarik handiena 2018ko urtarriletik. 2018ko urriari dagokionez, adierazleak % 7,4ko uzkurdua izan zuen (minimoa 2013ko apiriletik), merkatuak aurreikusitako % 1,3ko jaitsieraren azpitik, eta aurreko hilean % 1,7 igo ondoren. Japoniako Ekonomia, Merkataritza eta Industria Ministerioak ekoizpena «ahuldu egin dela» aitortu zuen. Urteko hamargarren hilabetea, Japoniako industria-ekoizpenaren atzeraldiari bultzada handiena eman zieten industriak honako hauek izan ziren: ibilgailuak, erabilera orokorreko makineria, negozioak eta makinaren ekoizpena.

Adierazlearen azalpena

Industria-ekoizpenaren indizeak (IPI) herrialde bateko industria-sektorearen adierazgarri den enpresa multzo baten ekoizpenean emandako aldaketak neurtzen ditu. Hilero enpresei industria-sektorearen egoerari buruz egiten zaizkien galdetegiaren erantzunetatik lortzen dira datuak. Ekonomia baten ekoizpen-maila nola aldatzen den jakitea oso garrantzitsua da hazkundearen analisia egiteko.

KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreik.
12/02	Japonia	Japoniako Jibun Bank fabrikazioaren PMIa	--
12/02	Txina	Txinako Caixin fabrikazioaren PMIa	51.5
12/02	Espainia	Espainiako Markit fabrikazioaren PMIa	46.5
12/02	Frantzia	Frantziako Markit fabrikazioaren PMIa	51.6
12/02	Alemania	Alemaniko Markit/BME fabrikazioaren PMIa	43.8
12/02	Eurogunea	Euroguneko Markit fabrikazioaren PMIa	46.6
12/02	Erresuma Batua	Markit, RU SAREN PMI fabrikazioa	48.3
12/02	Estatu Batuak	Markit AEB fabrikazioa PMI	52.2
12/02	Estatu Batuak	ISM manufaktura-indizea	49.2
12/04	Japonia	Japoniako Jibun Bank Zerbitzuen PMIa	--
12/04	Japonia	Japoniako Jibun Bank Composite PMIa	--
12/04	Txina	Txinako Composite PMI Caixin	--
12/04	Txina	Txinako PMI zerbitzuak Caixin	51.2
12/04	Espainia	Markit PMI zerbitzuak Espainia	51.9
12/04	Espainia	Markit PMI Composite Espainia	50.7
12/04	Frantzia	Markit Frantzia Zerbitzuak PMI	52.9
12/04	Frantzia	Markit PMI Composite Frantzia	52.7
12/04	Alemania	Markit Alemania Zerbitzuak PMI	51.3
12/04	Alemania	Markit/BME Alemania Composite PMI	49.2
12/04	Eurogunea	Markit Eurogunea Zerbitzuak PMI	51.5
12/04	Eurogunea	Markit PMI Composite Eurogunea	50.3
12/04	Erresuma Batua	Markit/CIPS RU Zerbitzuak PMI	48.6
12/04	Erresuma Batua	Markit/CIPS RU Composite PMI	48.5
12/04	Estatu Batuak	ADP Enplegu aldaketa	140k
12/04	Estatu Batuak	Markit AEB Zerbitzuak PMI	51.6
12/04	Estatu Batuak	Markit PMI Composite AEB	--
12/04	Estatu Batuak	Ez fabrikazioaren ISM indizea	54.5
12/05	Espainia	Urte arteko SA industria-ekoizpena	% 0.0
12/05	Eurogunea	Urte arteko xehekako salmentak	% 2.2
12/05	Eurogunea	Urte arteko BPGd SA	% 1.2
12/05	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	215k
12/05	Estatu Batuak	Balantza komertziala	-\$48.7b
12/05	Estatu Batuak	Ondasun iraunkorren aginduak	--
12/06	Alemania	Urte arteko WDA industria-ekoizpena	-% 3.6
12/06	Frantzia	Balantza komertziala	-5000m
12/06	Estatu Batuak	Langabezia-tasa	% 3.6
12/06	Estatu Batuak	Pertzepzioa Mich. U.	97.0
12/06	Estatu Batuak	Oraingo egoera Mich. U.	--
12/06	Estatu Batuak	Aukerak Mich. U.	--

BURTSA:

Aste positiboa Europako errenta aldakorrarentzat, mistoagoa Asian eta negatiboagoa merkatu gorakorretan. Egoera komertzialak bereganatu zuen berriro inbertitzaileen arreta. Aurrerapausoak eman ziren bi potentzien arteko negoziazio komertzialetan, eta badirudi lehenengo akordio bat izenpetzetik gertu daudela. Izan ere, Txinak jabetza intelektualaren babesa indartzera bideraturiko irizpide batzuk ezagutarazi zituen, eta hori da, hain zuen ere, ituna sinatzeko AEBen eskakizun nagusietako bat. Asteazken gauean, baina, Trumpek Hong Kongeko manifestarien aldeko Kongresuaren ebazpena sinatu zuen. Bada, Asiako erraldoiak gertaera hori bere barne arazoetan eskua sartzea dela uste du, eta horrek prozesua zaildu dezake. Asian, Hong Kongeko tentsioak ez ziren hauteskundearen ostean baretu, burtsa indizeen bilakaeran eragina izan zuena. Bien bitartean, makro inguruneari begira, KPIa igo eginda da Eurogunean, Alemaniako enpresen konfiantzak hobera egin du eta moteltze ekonomikoaren okerrena atzean geratu dela iradoki dezaketen Europako Batzordearen konfiantza-adierazleak argitaratu dira. AEBetan, kontsumitzailearen konfiantzak behera egin arren, hirugarren hiru hilekoko BPGd-a gorantz berrikusi zen. Halaber, ondasun iraunkorren eskariak igo egin ziren, behera egitea espero zenean. Japonian, industria-ekoizpenaren datua kaskarra izan zen.

INDIZEAK	PREZIOA	% Aldaketa Astean	% Ald 2019
MSCI WORLD (Local)	1.761,59	0,85	22,21
IBEX35	9.352,00	1,05	9,51
DJEUROSTOXX50	3.703,58	0,44	23,39
DJSTOXX50	3.344,72	0,68	21,18
FTSE	7.346,53	0,27	9,19
S&P500	3.140,98	0,99	25,30
Dow Jones	28.051,41	0,63	20,25
NASDAQ	8.665,47	1,71	30,60
NIKKEI225	23.293,91	0,78	16,38
MSCI GORAKORRAK (tokikoa)	58.288,49	-0,63	9,10
MEXBOL	42.820,18	-1,61	2,83
BOVESPA	108.233,30	-0,42	23,15
SHANGHAI	3.009,43	-0,45	15,24
Errusia Rts Mosku	1.438,45	-1,17	34,60

ERRENTA FINKOIA:

Mugimendu gutxi zor subiranoaren kurbetan. Europan, bund-ak gorabeherarik gabe amaitu zuen, -% 0,36an, eta Espainiako 10 urterako tasak op 1 egin zuen gora, % 0,42raino. Arrisku-primak 78 punturekin itxi zuen. AEBetan, 10 urterako treasury bonua % 1,78an kokatu zen (+1 op). Kredituaren diferentzialak, aldiz, estutu egin ziren.

Gobernuen tasak	Maila	% Aldaketa astean	Ald 2019
ALEMANIA 2 URTE	-0,63	0,01	-0,02
ESPAINIA 2 URTE	-0,39	-0,01	-0,14
AEB 2 URTE	1,61	-0,02	-0,88
ALEMANIA 10 URTE	-0,36	0,00	-0,60
ESPAINIA 10 URTE	0,42	0,01	-1,00
AEB 10 URTE	1,78	0,01	-0,91
ALEMANIA 30 URTE	0,15	-0,01	-0,73
ESPAINIA 30 URTE	1,28	-0,02	-1,33
AEB 30 URTE	2,21	-0,02	-0,81

DIBISAK / LEHENGAIK:

Lasaitasuna truke nagusietan; euroa, esate baterako, 1,10 dolarretik hurbil geratu zen berriro (hiru aste baino gehiago daramatza maila berean). Libera indartu egin zen, Erresuma Batuko hauteskundeetarako egun gutxi falta direnean. Johnsonen kontserbadoreak inkestetan buru dira, eta, beraz, baliteke Brexitaren aldeko ituna Eguberrietan aurrera ateratzea. Lehengaietan, petrolioaren prezioak -% 2,60 egin zuen behera. Aste honetan, LPEEK 2020rako ekoizpen-estrategia iragarriko du. Badirudi Errusiak, aliatu nagusiak, apirilera arte atzeratuko duela murrizketa gehigarriak egiteko erabakia, eta, beraz, merkatuak espero du egungo kuoten banaketa luzatzeko aukerari eustea.

Kreditu-spreada (op)	Maila	% Aldaketa Astean	Ald. % 2019
MARKIT ITRX EUROPE 12/24	47,80	-1,95	-40,57
MARKIT ITRX EUR XOVER 12/24	221,24	-12,87	-132,45

Dibisak	Maila	% Aldaketa Astean	Ald. % 2019
Dolarra / Euroa	1,10	-0,02	-3,92
Yena / Euroa	120,62	0,71	-4,03
Libera / Euroa	0,85	-0,81	-5,19

Lehengaiak	Maila	% Aldaketa Astean	Ald. % 2019
Petrolio (Brendt)	61,34	-2,60	15,37
Urrea	1.463,98	0,14	14,15

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.